



ALDAKETARAKO PROPOSAMENAK


Gizarte osasuntsu bat, gure ustean, hiru botere-eremuen arteko oreka duena da. Hiru botere hauek, botere politikoa, ekonomikoa eta soziala dira.

Botere politikoa, Estatuak edo administrazio publikoak kudeatzen dutenari egiten dio erreferentzia, bertan botere legegilea eta betearazlea aurkitzen ditugularik. Eremu horretan, herritarren parte hartzea hainbat eratarik gertatu daiteke. Alde batetik, herritarrok, hainbat eskubide eta betebeharren jabe garen aldetik parte hartu dezakegu. Hala nola, legeak bete daitezten eskatu edota gure estatuak nazioartean sinatu dituen nazioarteko legedi, arau, zein itunak betetzeko eska diezaiogegu. Horrez gain, botere legegileari gure pentsaeraren araberako gizartea eta mundua adierazten duten arauak eta legeak eska diezazkiokegu.

Botere ekonomikoa ("merkatua" deitzen den hori), berriz, ondasunen eta zerbitzuen salerosketarekin lotura duen orori dagokio. Eremu horretan ere badugu ahalmenik herritarrok, kontsumitzaile garen aldetik. Merkatuari buruzko teoria klasikoaren arabera, eskaintzaren eta eskariaren arabera jarduten dira indar horiek. Oreka bat sortzen da eskaintzaren eta eskariaren arteko elkarriketan, eta horrela erabakitzen da zer ekoizti, nola, norentzat eta zein preziotan. Honenbestez, erosiz (edo ez erosiz) dugu ahalmena alor honetan, hots, enpresak beste era batera ekoiztera behartzen dituen eskari bat sortuz, gure erosketaren bidez adieraziz giza eskubideak errespetatzea eta ingurumena zaintzea nahi dugula. Beste zuzeneko solaskidetzak-mekanismo batzuk ere erabil ditzakegu; adibidez, enpresen zuzeneko komunikazioko bideak, edo bezeroaren arreta-zerbitzuak.

Botere sozialari dagokionez, azkenik, elkarte eta erakundeen bidez erantzun zehatzak eratu ditzakete herritar kritiko eta aktiboek. Alor horri dagozkio sentsibilizazio-, trebakuntza-, informazio- eta mobilizazio-jarduerak, baita ez Estatuak ez merkatuak betetzen ez dituzten hutsuneei gizarte zibilak eman beharreko erantzunak ere. "Hirugarren sektorea" edo gizarte zibil antolatua deitzen zaio eremu horri.

Gure ustean, hiru eremu horietan jardun behar dugu;



Horregatik, gizartea ezagutzeko eta aldatzeko zenbait neurri proposatzen ditu ALBOANek.

Botere politikoa arloan, Europa osorako araudi bat aldarrikatuko dugu. Araudi sendo bat nahi dugu, berma dezan gure gailu elektronikoetako (bereziki) eta produktu etako (oro har) mineralak garbiak direla, ez direla erabiltzen inongo gatazka edo giza eskubideen urraketa elikatzen edo sortzen. Horretarako, legediari buruzko proposamenaz gain, mobilizazioak eta atxikimendu-kanpainak ere bultzatuko ditugu, buruzagi politikoei presioa egin eta, araudi bat prestatuz, eragotzi dezaten gatazka elikatzen dituzten mineralak eta bestelako lehengaiak gure produktu eta bizitzetan erabiltzea.

Botere ekonomikoa arloan, berriz, bi proposamen egiten ditugu. Alde batetik, produktu teknologikoen kontsumo arduratsua eta eraldatzailea. Kontsumitzaile arduratsua izateko, jakin egin behar dugu zer ari garen erosten, ongi aukeratzeko eta merkatuari gure balio etikoaren arabera mezuak helarazteko. Horrez gain, produktu zentzuzko erabilera ere egin dezakegu eta erosketak aukeratu (Enough-en¹ edo Greenpeace² -ren zerrendak erabil ditzakegu), edo gogoeta egin beste erosketen baten premiaz.

Amaitzeko, botere sozialaren alorrean, zenbait mobilizazio- eta trebakuntza-ekimen ditu gure "Gatazkari gabeko teknologia" kanpainak. Hona zer egin dezakegun:



- 1.- Biziki sustatu gure inguruan gatazkari gabeko teknologiaren erabilera;
- 2.- Informatu eta gure inguruko jendea eta taldeak trebatu;
- 3.- Kanpaina ezagutarazi eta haren hedatzaile bihurtu, edo...
- 4.- "Kongorako mugikorrak" bildu zure inguruan. Mugikor horiekin, hango gatazkaren ondorioak jasaten dituztenen aldeko zenbait proiektu finantzatu ditugu.

¹ <http://www.raisehopeforcongo.org/content/conflict-minerals-company-rankings>

² <http://www.greenpeace.org/international/en/campaigns/climate-change/cool-it/Campaign-analysis/Guide-to-Greener-Electronics/>

ARIKETA-PROPOSAMENA

ZER NAHI DU BAKOITZAK?

Helburua: Gai honi buruz mintzatzean sortzen diren ikuspuntu desberdinak plazaratzea, eta konponbideak edo aurrera egiteko moduak bilatzen saiatzea.

Materialak: Kanpainako webgunea. Kanpainako egunkaria. Kanpainako sakontze-fitxak. Eragilean txartelak eta haien ezaugarriak.

Garapena: Eskatu taldeari botere-eremu bakoitzeko eragileak bilatzeko. Eragileak aurkitu ondoren, esan haien ezaugarriak azaltzeko: zer helburu eta premia dituen bakoitzak. Denboraren arabera, eremu bakar bat jorratu, edo hirurak batera; denbora gutxi duten taldeek edo lehen fase horri hainbesteko tarterik eskaini nahi ez diotenen eskuragarri dute zerranda bat eta ezaugarri-sorta bat, adibidetzat erabil ditzaten edo eztabaida abiaraz dezaten.

Eman paper horietako bat lagun edo talde bakoitzari, eta 5-10 minutu arrazoiak lantzeko.

Prestaketa-fase horren ondoren, eskatu parte-hartzaileei gure proposamenei eta eragileek ematen dieten erantzunari buruzko eztabaida bat egiteko (edo antzeppen bat). Beste aukera bat: bestelako ekintza batzuk proposa ditzatela, orain artean aurkeztu ditugunak ez bezalakoak.

Botere politikoa

Berdeen Taldeko europarlamentari bat (hauteskunde-programan, ingurumenaren eta giza eskubideen aldeko atal bat zeukaten); Europako Merkataritza Batzordea (hegoaldeko herrialdeekiko lehengai-saleroketa bermatzea eta Europako enpresak beste batzuekiko desabantailan egon ez daitezen esparru bat ezartzea du helburu nagusi); enpresetako ordezkariek (ESKren eta merkataritza librearen alde egiten dute; beren jarduerak Hegoaldeko herrietan enplegua eta inbertsioa sortzen dituela diote); Asia eta Hego Amerikako industria elektronikoko langile emakumezkoen sindikatuko kide bat (LANEren laneko eskubideei buruzko itunak betetzeko, soldatek gizon-emakumeen oinarriko premiak asetzeko, lan- eta sexu-jazarpenik ez egoteko, langileen osasuna kaltetzen duten produkturik ez erabiltzeko... eskatzen duen sindikalista bat); gizarte zibila (gatazka-iturri diren mineralen herrialdeetako batekin lan egiten duten GKEen ordezkariren bat) eta boto-emaile bat (enpleguaz arduratzen den eta ez bere mugikorrek materialen jatorriaz, ez hura bere poltsikora iritsi arteko fabrikazio-prozesuaz deusik ez dakien norbait).






Botere ekonomikoa

Enpresa multinazional bat (elektronika-alorreko enpresa handi eta nagusietako bat); kontsumo.kooperatiba bat (zenbait elikagai debekatu egin zituzten, eta gehiago debekatzekotan dira; hasiak dira garbiketa-produktu ekologikoak saltzen, eta beste alor batzuetarako -elektronikorako barne- ordezko aukerak bilatzen ari dira); "bidezko mugikorren" alorreko enpresa bat (beren mugikorrek estandar etikoak betetzen ez zituztela ikusirik elkartu eta mugikor "bidezkoago" bat egiten ari den jendea); kontsumitzaile bat (mugikorrek barruan zer duen ez dakien, prezioak eta bere egoera sozionalak kezkatzen duen norbait).

Botere soziala

Kongoko ED garatzeko lanean ari diren GKEen nazioarteko sareko ordezkarik bat (Kongoko gatazka amaitzea nahi du, eta jendea trebatzea eta sentibilizatztea); gure inguruko GKEren bateko ordezkarik bat (gai horietaz jarduteko guneak bilatzen dituen norbait); bere inguruaz arduratzen den norbait (gauzak egiteko gogoa eta informazioa duen norbait, baina denbora askorik ez duena eta "erre" samarrik dagoena); gaiari buruz deus ez dakien norbait (ez du ez aparteko sentibilitaterik, ez denborarik).

INFORMAZIO GEHIAGO ESKURATZEKO BITARTEKOAK

-  Kanpainaren webgunea: www.gatazkarikgabekoteknologia.org
-  Raise For Congo kanpaina: <http://www.raisehopeforcongo.org/content/conflict-free-cities>
-  No con mi móvil kanpaina: <http://entitatscongo.blogspot.com.es/p/campanya-mobils.html>
-  Kanadan Gatazka Mineralak arautuko dituen legedi bat eskatzeko kanpaina: <http://petition.ndp.ca/conflictfree>
-  Kongoren aldeko mugikorrek: www.kongorenaldekomugikorrek.alboan.org



-en proiektu bat



lortzeagatik

Jesuitek bultzatutako Fundazioa
www.alboan.org

www.gatazkarikgabekoteknologia.org